


Uraren pisua

Nola eragiten dio urak objektuen pisuari?

Materialak

- 20 cm-ko 3 soka zati
- Erregela bat
- 2 torloju
- Plastikozko 2 edalontzi
- Iturriko ura



Zer egin

1. Lotu soka bat erregelaren erdian. Heldulekua izango da hori.
2. Lotu beste bi sokak erregelaren mutur banatan, eta utzi 5 cm-ko soka zati bat zintzilik.
3. Lotu bi torlojuak 5 cm-ko soka zati horiei, 2. urratsean zintzilik utzitako horiei. Balantza bat egin duzu.
4. Bete plastikozko edalontziak iturriko urez.
5. Tira egin gorantz helduleku gisa balio duen sokari, eta erreparatu erregelaren muturrei. Muturrak orekatzen ez badira, mugitu heldulekua den soka erregelaren zehar, muturrak orekatu arte.
6. Sartu torlojuetako bat ura duen edalontzietako batean. Zer gertatu zaio balantzari?
7. Sartu torloju bat edalontzi bakoitzean. Zer gertatu da orain?

Zer gertatzen da?

Torlojuetako bat ura duen edalontzietako batean sartzean, oreka aldatu egin da, eta uretatik kanpo zegoen torloju gehiago hondoratu da. Uretan sartu duzun torlojuaren pisuaren zati bat uretara igaro da, eta urak torloju goian mantentzen lagundu du. Bi torlojuak ur-edalontzietan sartzean, pisu bera galdu dute bi torlojuak, eta erregela orekatuta geratu da.